

Bizigiro ➤

Marka guztiak hausteko uzta

Euskal Sagardoa jatorri izeneko kideen arabera, uzta «historikoa» izango da aurtengoa. 10 milioi kilo sagar baino gehiago batzea espero dute, eta 1,5 milioi litro sagardo baino gehiago ekoiztea.

2017-09-15 / Kerman Garralda Zubimendi (http://www.berria.eus/egilea/kerman_garralda_zubimendi)

Atzo argitaratutako datuen arabera, Euskal Sagardoa jatorri izenak aurreikusi du 2017ko uzta «historikoa» izango dela. Teknikarien esanetan, «azken urteetako uztarik emankorrena izango da 2017koa, 10 milioi kilotik gora jasotzea espero baita». Gainera, uzta «aurreratuta» datorrela azpimarratzen du sor-markaren txostenak, zenbait sagastitan hasiak baitira sagarra jasotzen. Izan ere, udaberrian eta udan izandako eguraldi onak fruitua ugari haztea ahalbidetu du, eta azken egunetako euriek «alea izugarri handitu dute».

Euskal Sagardoa jatorri izenaren barnean Araba, Bizkai eta Gipuzkoako sagardoak daude, eta soilik bertako sagarrekin egindako sagardoa onartzen dute. Aurtengo uzta bikainari esker, bertako sagarrekin iaz egindako 1.320.000 litroak —produkzioaren %12 inguru— gainditzea espero dute sagardogileek. Gainera, aurtun sagardotegi gehiago sartu dira Euskal Sagardoa jatorri izenean. Denera 40 inguru dira, eta 250 sagasti baino gehiago kudeatzen dituzte.

Euskal Sagardoa jatorri izenak bertako 115 sagar mota onartzen ditu. Horietatik ohikoenak 24 sagar mota jasotzen dira Araba, Bizkai eta Gipuzkoan —hala nola errezilla, frantzes sagarra edota salxipia—, baina tokian tokiko barietateari ere lekua egin nahi diote, sagardogile eta eremu bakoitzak bere sagardo mota egin ahal dezan.

Euskal Herriko txoko askotan egiten da sagardoa, baina Astigarragan esanahi berezia du. Astigartarrek sagarraren inguruan eraiki dute euren identitatea. Hori dela eta, herriko eragile desberdinak biltzen dituen festa antolatu dute irailaren 21,23 eta 24rako.

Nola ez, sagarra izango da festaren protagonista. Pintxo-pote berezia egongo da —pintxo denak sagarrez egindakoak izango dira—, muztio dastaketak, sagar eta sagarrondo motak ezagutzeko ibilaldi eta tailerrak, sagar postreen lehiaketak eta sagar azoka berezia. Urumea ibaian zutikako arrauna egiteko aukera ere izango da, ibaia baitzen sagarra ibarrean zabaltzeko bidea.

0 iruzkin Berria

1 Saioa hasi ▼

♥ Gomendatu

📧 Partekatu

Berrienetik hasita ▼



Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN ?



Izena

Egin lehen iruzkina.

✉ Harpidetu 🗄 Gehitu Disqus zure webguneraGehitu DisqusGehitu

🔒 Pribatutasuna

Gaiarekin zerikusia duten albisteak

(http://xenda.elhuyar.eus/xenda-hekimen.html)

xenda